

hezkuntzako laboralak

*Erretiro partziala
Errelebu kontratua*

*Ordutegia eta egutegia
Berrira ?*

marmotaren

eguna

Iraileko aldizkarian genion, ez zela lan makala izan erretiro partziala martxan jartzea, hainbat arrazoiengatik, besteak beste, berandu genbiltzailako, kontua berria zelako... baina une honetan egoki iruditzen zaigu hausnarketa bat egitea datoren urteei begira hobetze aldera.

Hasteko, informazio falta handia egon da, honen aurrean jendeak zalantza ugari izan ditu eta maiz informazioaren eskuragarritasuna ez zen hain samurra lortzea. STEE-EILAS sindikatuaren iritziz Administrazioako pertsona batek hartu beharko luke bere gain lan hau eta halaxe adierazi dio sindikatuak Hezkuntza Sailari.

Bestetik, kontuan harturik aurrejubilazioa hartzen duenak %15a besterik ez duela kobratzen, (beste guztia Gizarte-Segurantzak ordaindu behar baitio) ezinbestekoa da lehenbailehen Administrazioak paperak prestatzea, hau da, irailaren lehen asterrako, ondorenen interesatuak Gizarte-Segurantzara eramateko. Horretaz gain, Ordezkaritzaren lana da paperak prest daudenean dago-kionari deitzea, Gipuzkoan hau ez omen zuten oso garbi (aurten urriaren hasieran oraindik ez zegoen konpondua).

Azkenik, lehen esan dugun legez, aurrejubilazioa hartzen duenak %15a bakarrik kobratzen du Hezkuntza Saitetik Egoera larri hau saiheste aldera epe luze batean Administrazioak lehenbailehen ordain dezake bakoitzari dagokion saria, hau da, iraileko soldatan izan beharko luke (aurten azaroaren 23an oraindik ez zuten xentimorik kobratu Gipuzkoako hainbat pertsonak).

Hitz bi bukatzeko, sindikatuak argi du Administrazioak lan eta esfortzu berezia egin duela kontu honetan baina badu zer hobetua. Hemen aipatu ditugun konponbideak Administrazioari helarazi dizkio STEE-EILAS sindikatuak, Administrazioak bere aldetik akats horiek izan direla onartzen ditu eta prest dago neurri horiek aurrera eramateko. Hala izan dadila! ★

Gogoratuko duzue, azaroaren amaieran espezialisten lanpostuen ezaugarriak zehazteko orri batzuk heldu ziren zentroetara. Ikuskaritza Nagusiak bidaltzen zituen, eta oso epe laburra ematen zuen betetzeko. Zergatik hainbeste buelta eta rolo egutegia eta ordutegiarena egiteko, berriro gauza berberak jarri behar badira beste orri batzuetan?

Azaroaren 22an izan genuen Parekidean Hezkuntza Sailak erantzun zigun: Ikuskaritza Nagusiak Hezkuntza Premia Berezien inguruko baliabide pertsonalak aztertu nahi ditu, eta hasi dira Hezkuntza Laguntzako Espezialisten Kolektiboarekin. Helburua da gure plantilari buruzko datu objektiboak izatea. Azterketa hori Administrazioak erabiliko du LPZ handitzeko prozesuaren lehenengo pausua bezala. Eta LPZ handitzeak behar bezalako lekualdatze lehiaketa izatea suposatuko du.

Baina Hezkuntza Bereziko beste kolektiboak ez dituztela ahaztuko ziurtatu digute, eta fisioterapeutak, logopedak, Lan Terapeutak eta abarrak ere aztertuko dituztela, ea behingoz onartzen duten plantilak handiagotu behar direla.

Beraz, ez zaudete ametsetan eta ez da Marmotaren Eguna behin eta berriz errepikatzen dela: gauza desberdinak ziren kurtso hasierako egutegi eta ordutegiarena eta Ikuskaritzak bidalitakoa★